

MARKINA-XEMEIN

Euria eginez gero, Bedartzandiko haitzak zeharkatu beharrez Gabaro, Igoz eta Larro albotik pasatzen den bidetik ingura ditzakegu.

ikurrak

- | | | |
|------------------|----------------------|------------|
| Abiapuntua | Natura2000sarea | Eliza |
| Helmuga | Gailurra | Ermita |
| Garraio publikoa | Ikuspegi panoramikoa | Hilerria |
| Aparkalekua | Iturria | Bolalekua |
| Taberna | Atsedenekua | Aterpetxea |

Udaletxeko plazatik abiatuko gara. Panel batean jasota dago Aulestiko ibilbide sarea eta bide horietako batzuetatik ibiliko gara txango honetan. Kalean behera egingo dugu eta uraskaduniturri zahar baten eta kanposantuaren albotik pasatuko gara. Jarraian, errepidea albo batera utzi eta eskumarantz abiatzen den auzo bidetik aurrera egingo dugu, PR-BI 26aren seinaleei jarraituz. Lea ibilbidearekin egingo dugu topo eta bide honetatik tarte batean ibiliko gara, baina Ormaetxe inguruan bidea albo batera utzi eta Goierriarantz auzo bidean gora egingo dugu, harik eta Barbiola baserri zaharrera heldu arte. Hemen eskumatik jarraituko dugu, auzo errepidean gora, PRaren markak jarraituz, Goierriko baserri artetik (Kortabitarte, Goikoetxebarri, Iturritza...). Pinu landaketa baten erdian Lekeitio eta Ondarroa aldera doan GRarekin (GR 38.1) elkartuko gara. Puntu honetan PR-BI 26a albo batera utzi eta Urregarai aldera igotzen den GRtik jarraituko dugu. Astiro-astiro maldari aurre egingo diogu, Axolabeko eta Axolagoiko baserrien albotik bidegurutzte berri batera heldu arte.


Urregaraira joateko bide bi daude, Bedartzanditik pasatzen dena eta Jantzilekutik doana. Guk azken honetatik jarraituko dugu, astiro-astiro maldan gora, edertasun handiko artadia zeharkatuz, ikuspegiak mendi-gainera heltzen ari garela erakusten digun arte. Ederra da Jantzilekuk eskaintzen digun ikuspegia eta ederragoa laster Urregaraitik izango duguna. Lehenik erromeria ospatzen den mendiartera jaitsiko gara eta handik Urregaraira igoko gara. Santa Eufemia bidean ditugun harrizko eskailerak igo ostean alboan izango dugu gailurra eta bere ikuspegi ederra.

Bide beretik mendi artera jaitsi eta pistan behera egingo dugu Lekoizganara heldu arte. Markinako errepidea zeharkatu eta landaketa zeharkatzen duen pistatik jarraituko dugu Orrospen baserrira jaisteko. Hemendik behera, auzo errepidetik jarraituko dugu. Urriola inguruan eskumarantz jo eta erreka bazterreko auzo bidean behera joango gara. Madalen ermita albotik igaro ostean Errekondoko parkera heldu eta dagoeneko Aulestiko herrigunetik hurbil izango gara.

FITXA TEKNIKOA

14,4
km
LUZERA

650
m
MALDA



Santa Eufemia ermita Urregarai tontorrean



Aulesti, 1918



Bolatokia



Urregaraien


urregarai eta bedartzandi inguruan...

ERROMERIA JENDETSUA

Mendiek beti erakarri izan gaituzte. Bertan dute jatorria eta eszenatokia gure mitologiako hainbat pasartek, bertan eraiki izan ziren kristauen lehen ermitak eta mendietan ospatu izan dira, ez dakigu noiztik, Euskal Herriko erromeria jendetsuenak.

Kondaira zaharrak dio inguru honetan Tartalo (Aharabi Lea-Artibaien) bizi zela. Hain zen handia, non hanka bat Bedartzandin eta bestea Urregaraien jartzeko gai baitzen. Marmol beltzeko harrobitik jentilek Markina aldera harriak botatzen zituztela ere kontatu izan da eta horiekin eliza eraiki zela bertan.

Noiztik ez dakigun arren, urtero, irailaren 16an Santa Eufemia erromeria jendetsua ospatzen da Bedartzandi eta Urregarai mendien arteko zelaian.



Oianguren. Guregiuzkoa.eus

Ikuspegi ederra Urregaraitik



Sollube
(684 m)

Arrola
(537 m)

Ereñozar
(447 m)

Illunzar
(726 m)

Bedartzandi
(700 m)

Santa Eufemia

Urregarai
(704 m)